

Euskara: Hezkuntz-sistemaren hezurdura

Felix Basurko

Autonomia politikoa galdu geroztik, gure hizkuntza eta gure kultura izan dira historikoki gure herritartasunaren ardatz nagusiak. Estatu-administrazio eta instituzio politikoaren aurrean gizarte zibilak euskaltegi eta ikastoletan zentratu zuen bere erresistentziazko borroka nazionala. Estatu espainarraren barruan egokitze politikoaren prozesu honetan behin eta berriz agertzen zaigu "normalkuntza" hitza. Horregaitik, idatzi honetan, Hizkuntz-normalkuntzari begira, Hezkuntza sistema eta politikatik izan diren neurriak eta garapenak aztertu nahi ditugu. Beraz, hezkuntzaren politika, hezkuntza sistemaren barruan erabiltzen diren eredu linguistikoak eta bere garapena, irakaslegoari dagokion hizkuntz-politika, hezkuntzaren curriculum, eta hezkuntza sistemarekin erlazionaturik dauden hizkuntz-erabilkera sozialak aztergai ditugu.

Our language and culture have constituted historically the key points in our nationality since we lost political autonomy. Against the state administration and political institutions, the civil society focused its national resistance fight on the Basque-language schools ("euskaltegi" and "ikastola"). Within the Spanish state, in this process of political adaptation, the word "normalization" appears again and again. That's why in this text, we wish to analyze those steps that have been taken and evolution in the educational system and politics towards the normalization of the language. Thus, we are analyzing education politics, linguistic characteristics that are used within the educational system and their development, the language policy corresponding to the teachers, educational curriculum and social use of the language related to the educational system.

Historian zehar Espainia edo Frantziar estatuetan sartuta gaudenetik Euskal Herriak euskalduntasunaren zutabetzat ditu euskara eta hezkuntza. Autonomia politikoa galdu geroztik, gure hizkuntza eta gure kultura izan dira historikoki gure herritartasunaren ardatz nagusiak (EIZAGIRRE-DAVILA, 91. *Ele-8*, 27-55 orr.). Arlo horretan, euskaltegiak eta ikastolak izan dira haien etapa desberdinetan lekuko nabaria eraman dutenak. Estatu-administrazio eta instituzio politikoen aurrean gizarte zibilak euskaltegi eta ikastoletan zentratu zuen bere erresistentziarako borroka nazionala.

«Arazoa da, Euskal Herriari buruzko ideologia desberdinek botere politikoa eskuratzeko borroka biziari ekin ziotela Franko desagertzeko rakoan eta grina honetan interes politikoen arabera hezkuntza eta hizkuntza bitartekari gisa erabiliak izan direla oso. Nola uler daitezke, bestela, ikastolek eta helduen euskalduntzeko euskaltegiek bizi dituzten hamaika istorioak?»

Euskal Herria normalkuntza prozesuan sartuta baldin bada-go, beraz, hezkuntz-sistemak bete behar dituen funtzioak birplanteatu beharko ditu. Arazoa da, Euskal Herriari buruzko ideologia desberdinek botere politikoa eskuratzeko borroka biziari ekin ziotela Franko desagertzeko rakoan eta grina honetan interes politikoen arabera hezkuntza eta hizkuntza bitartekari gisa erabiliak izan direla oso. Nola uler daitezke, bestela, ikastolek eta helduen euskalduntzeko euskaltegiek bizi dituzten hamaika istorioak?

Beharbada, horregaitik hezkuntza-sistema eta euskara askotan aurrez-aurre agertzen dira gure artean azken mende honetan. Hezkuntza-sistema ofiziala administrazioen eskuetan egon da beti; euskara, berriz, gizarte zibilaren eskuetan. Hezkuntza-sisteman gaztelania izan da nagusi; kalean, berriz, euskara. Hezkuntza-sistema formaletan gaztelania izan da nagusi; ikastolek eta euskaltegiek osatzen zuten hezkuntza-sare ez-formaletan, berriz, euskara nagusi; haurren eta helduen euskalduntzeko prozesuak batera joan beharrean gasztelaniaz egiten den bezala, bakoitza bere aldetik borrokatzen ari dira.

Estatu espainarraren barruan egokitze politikoaren prozesu honetan behin eta berriz agertzen zaigu "normalkuntza" hitza, hizkuntzari dagokion normalkuntza nahiz heziketari dagokion normalkuntza nahiz hezkuntza-sistemari lotutako ikastola normalkuntza edo euskaltegien homologazioa. Izan ere, LARRAÑAGAK dioenez: "normalizazioa gauza askotarako erabiltzen den hitza da, hitz tranpa bezala funtzionatzen ari da... normalizatzea bazirudik konfliktorik ez izatea, tentsiorik ez sortzea dela, eta hori ere zentsu horretan tranpa duk" (BAT-1,61 orr.). 15 urte eman ditu tirabira horietan, baina zer argitu da historia honetan? Zer aurrerapauso eman dugu? Zer nolako normalizazioa lortu da eta nora garamatza? Zer gelditu da bidean? Zer geratzen zaigu egiteke eta egiteko? Nondik jarraitu behar dugu? Nori dagokio prozesu hau zuzentzea? Zein da egungo hizkuntz-politika?

Hizkuntz eta hezkuntz-politika

Euskara-berreskurapen prozesuari aurre egiteko herrigintzan oinarritzen ziren euskalduntze dinamikak, ikastolak eta euskaltegiak alegia, instituzionalizatzearen bidean jartzeari deitu zioten normalkuntza. Ildo honetatik "Hizkuntz normalkuntzarako" 1982/10. legea dugu hizkuntz abiapuntu juridikoa, lege horretan proposatzen bait ziren hizkuntz helburuetan oinarriturik sortu ziren hezkuntzari dagozkion hizkuntz neurri aipagarrienak, hau da, irakaskuntza arautzeko A, B eta D hizkuntz ereduak; helduen irakaskuntza arautzeko eta homologatzeko HABE eta IRALE erakundeak; hizkuntz gaitasuna normaltzeko GUMA, IGA, B edo Sakontzeko hizkuntz ziurtagiriak eta EGA edo EIT tituluak, Hizkuntz Profilak, e.a.

Batzuen esanetan, honelako sare juridikoak aipatuz gero, 15 urte hauetan euskararen egoera orokorki asko aurreratu dela esan dezakegu.

Balantze baikor hau egin daiteke, baina kezkatzen gaituena zera da: araudi-areagotze honek ea bere baitan hobekuntzarako beharrezkoa den normalkuntza ote dakarren? LARRAÑAGAREkin batera esan dezakegu: "aipatzen diren normalizazioa berdin elebitasun orekatua, berdin legeztatzea, berdin ofizialkidetasuna lortzea... horiek helburu bezala hartzen dira, eta nik uste diat ezetz, ez direla helburu bezala hartu behar" (URIA-ZUMALABE, 1991, BAT-1, 63 orr.).

Herrigintzan, nire ustez, Administrazioaren papera subsidiarioa izatea da. Beraz, protagonista izan beharrean, herritarrak diren dinamikak erraztu nahian araudi juridikoak eta bestelako baliabideak sortzeko duen ahalmena erabili behar du Administrazioak. Bestalde, zitalak eta ulertezinak dira niretzat Buesak esandako hitzak: "Dagoeneko ez dago ikastolez zertan hitz egin beharrik" (*Egunkaria*, 93.05.27). Orduan, Euskal Eskola Publikoaren legea, zertara etorri da? Beharbada Ikastolaren mugimendua deusezteko? Buesak bere garaipen politikotzat ulertzen badu maiatzaren 25eko erabakia, esan dezakegu Gobernakideek interes politiko partidistaren arabera erabiltzen ari direla berriro ere hizkuntza eta hezkuntzaren gatazka, baina bide horretatik ez da inoiz ere normalkuntza etorriko.

Helduen alfabetatze eta euskalduntze politika-arloan AEK eta HABE arazoekin gertatu zen bezala, Ikastolen erabaki garrantzitsu honetan erakutsi dutenez, gobernakideek ez daukate hizkuntz eta hezkuntz-politikarako epe laburrerako ez eta luzerako plangintza orokor bat; are gutxiago plangintza desberdindua eskualdez, herrialdez eta herriz-herri aplikatze-

«Hezkuntza-sistema eta euskara askotan aurrez-aurre agertzen dira gure artean azken mende honetan. Hezkuntza-sistema ofiziala administrazioen eskuetan egon da beti; euskara, berriz, gizarte zibilaren eskuetan»

«Euskara-berreskurapen prozesuari aurre egiteko herrigintzan oinarritzen ziren euskalduntze dinamikak, ikastolak eta euskaltegiak alegia, instituzionalizatzearen bidean jartzeari deitu zioten normalkuntza»

ko. Une bakoitzean udal, aldundi edo autonomia-gobernuki-deek segun eta zein diren, euskararen trataerak egonaldi gozoa edo latza biziko du.

«Protagonista izan beharrea, herritar-
rak diren dinamikak
erraztu nahian araudi
juridikoak eta
bestelako baliabideak
sortzeko duen ahal-
mena erabili behar du
Administrazioak»

Hizkuntz politika eta Hezkuntza Sailaren artean dauden ezadostasunak ikusi ondoren, euskararen normalkuntza ez da instituzionalizatze-prozesuaren bidez epe laburrean bermatuta izango; beraz, euskararen etorkizuna herrigintza oinarritu egin behar da oraingoz ere bai hezkuntz sisteman, bai helduen irakaskuntzan, bai komunikabideetan edo ez-formal diren beste sistemetan.

Hizkuntz ereduen eztabaida

Hizkuntza eta hezkuntzari dagokion araudia alde batera utzirik, hona hemen beste kezka bat: Non dago 15 urte hauetan euskalduntze prozesuari dagokion balantzea?

a) Ereduen eztabaida:

Hizkuntz-ereduei buruz (BASURCO-IZTUETA, 93:146-159) ikastoletan nahiz eskola publikoetan izan diren esperientziek, Unibertsitate eta Administrazioaren bidez eginitako ikerketek (ETXEBERRIA, Felix, 93), edota matrikularen joerak adierazten dituen gurasoen iritziek (*Egin*, 1993.01.22) zera egiaztatzen dute:

- Elebitasun prozesuetan eragina duten aldagai linguistikoak (ETXEBERRIA, Felix, 84, *Isilik* 4, 6 orr.), sozialak (OLHARZABAL, 84, *Isilik* 4, 28-32 orr.) edo kulturalak (BAXOK, 84, *Isilik* 4, 17-23 orr.) kontutan harturik, Hizkuntz ereduen proposamena eta aplikapenaren berrikusketarako beharra dago;

- Buesa kenduz ("A ereduak hizkuntz normalkuntza dakar" (BUESA, *Egunkaria*, 92.07.12), Hizkuntz eskubideak bermatzeko A ereduaren porrotari buruz ez dago diskusiorik (Euskararen Aholku Batzordea, 91.06.07) eta gainera, okerrera dena, helburuak ez lortzeaz gain "hiztunen arteko desmotibazioa eta desenkantua sortzen da besteak beste" (SIERRA, 92, *Isilik* 14 zba., 6.orr.);

- B ereduaren daramatenak, "1Hri (lehenengo hizkuntza) eusten diote eta 2Hn (bigarren hizkuntza), jaiotzez hizkuntz honetako hiztun direnen gaitasun mailara iristen badira ere, ez dute maila berbera lortzen". Dena dela, nahiz eta bere errendimenduaren joera D ereduarekin parekatu, edozein kasutan, "2Hko hiztun gisa hartuaz jarrera ezkorragoa agertzen dute, hau da, beraien ekintza arruntetan ez dute erabiltzen bapatean 2H, edota, esan daiteke 2 Hren ikasketan gailurrera iritsi direla" (SIERRA, 92, *Isilik*, 147. orr). Beharbada hauek dira

«Buesak bere garai-
pen politikotzat
ulertzen badu maia-
tzaren 25eko eraba-
kia, esan dezakegu
Gobernukideek
interes politiko
partidistaren arabera
erabiltzen ari direla
berriro ere hizkuntza
eta hezkuntzaren
gatazka»

ertainetako irakaskuntzara iristerakoan A eredura jotzen dutenak.

- Euskalduntze-prozesu orekatua bideratzeko D ereduaren baliogarrtasuna behin eta berriz agertzen da: "D ereduaren eskolaturiko haurrei ez dio inolako murrizketarik sortzen bere 1Hn, eta -orrorokorean- gaztelaniaren mailak eredu ez elebidunetan(A) eskolaturikoekin pareka daitezkeelarik" (SIE-RRRA-OLAZIREGI, 89, *Isilik* 14, 8 orr.). Dena dela, euskararen kasuan D ereduaren erreferentzia-puntutzat hartu arren D ereduaren barruan mota asko daude, horregatik "ezin dugu ahaztu, D ereduak birmoldaketa batzu behar dituela, bai ikasle euskaldunei zuzenduta dagoenean bai ikasle erdaldu-
nekin murgiltze-sistema bezala erabiltzen denean" (Euskararen Aholku Batzordea, 91.06.07).

- Inmersio-sistemaren aldeko joera da nagusi, baina "la experiencia nos dice que no es factible continuar todos en un mismo centro sin que se generen conflictos(...) Si todos tienen derecho a una enseñanza de calidad, pedimos que los alumnos que estudian en modelos euskaldunes puedan acceder a un entorno euskaldun, y creemos que eso no es posible si en un mismo centro tienen que convivir con maestros y personal administrativo que no sabe euskera" (BIGE, *Egin*, 1993.01.22). Azken finean, "Ikastetxeak d(it)uen ereduak(ek) baldintzatzen du(te) bertako hizkuntz erlazio sarea. Eta hau(...) elementu inportantea da euskara bizi baten jabe egiteko" (ETXAGUE, 93, *Tanttak* 9, 21-44 orr.).

b) Ereduen garapen orokorra:

- Haurreskoletako eta lehen hezkuntzetako ikasmailan (1. Taula) B eta D eredu elebidunen hedapena nabaria da. Eskolaurrean "bi eredu hauetako bilakaera ezberdina izan da; B ereduak 1982tik 1988ra hasiera azpimarragarria izan zuen (%23tik %35.8ra igaro zen), eta geroztik badirudi goia jo duela eta azkeneko urteetan, 1988tik gaur arte, matrikulen %36ra ez da iritsi. D ereduaren berriz, lehenengo urte horietan matrikula ez zen asko handitu (%23tik %29.7ra), eta azkeneko bost urte hauetan haziera 8 puntukoa izan da, %37.8ra iritsiz" (NAIA/ETXAGUE/LUKAS, 93, *Uztaro*, inprimategian). OHoko kasua desberdina da, bada 1992tik gaur arte "D eredu bikoiztu baldin bada (%12.6tik %25.6ra), B ereduak hazkunde handiagoa jasan izan du (%7.1tik %26.1ra) eta une honetan, baita ere lehenengo aldiz, matrikula kopuruan D eredu gaintzen du" (NAIA/ETXAGUE/LUKAS, 93. Uztaro, prentsan).

«Hizkuntz politika eta Hezkuntza Sailaren artean dauden ezadostasunak ikusi ondoren, euskararen normalkuntza ez da instituzionalizatzeko prozesuaren bidez epe laburrean bermatuta izango»

«Elebitasun prozesuetan eragina duten adagai linguistikoak, sozialak edo kulturak kontutan harturik, Hizkuntz ereduaren proposamena eta aplikapenaren berrikusketarako beharra dago»

1. Taula. Matrikulazioaren bilakaera ikasmailaren arabera

	URTEAK	A %	B %	D %	X %	GUZTIRA
ESKO- LAU- RREA	1982-83	36.1	22.9	23.1	17.8	83.046
	1985-86	44.5	27.1	27.4	1.1	73.841
	1988-89	33.3	35.8	29.7	1.0	64.997
	1992-93	25.9	35.2	37.8	1.1	53.118
OHO	1982-83	61.6	7.1	12.6	18.7	313.123
	1985-86	71.6	10.2	17.2	1	302.383
	1988-89	62.1	16.7	20.4	0.7	267.300
	1992-93	47.5	26.1	25.6	0.8	206.150
BBB-UBI	1982-83	75.00	3.34	5.67	15.96	76.651
	1989-90	81.84	1.02	17.12	—	84.178
LH	1982-83	73.86	1.22	1.17	23.73	50.802
	1989-90	92.37	0.73	3.36	3.43	51.090
IEE	1982-83	—	—	—	—	—
	1989-90	72.76	2.03	25.92	—	20.540

Iturria: EUSTAT. Eragileak: Naia-Etxague-Lukas eta Iztueta.

- A eredia da matrikula-kontu honetan gehiena galtzen duena, eskolaurrean (%36.1tik %25.9ra) zein OHOn (%61.6tik %47.5ra). Datu hauek aipagarriak badira ere, harrigarriagoak dira OHOkopuru absolutoak aztertzen baditugu: "1985-86 ikasturtean A ereduan 216.555 ikasle ari zen ikasten, 1992-93 ikasturtean kopurua 97.884ra ailegatzen zen, beraz eredu honek 119.000 ikasle galdu ditu zazpi urtetan, kontuan hartzen badugu zazpi urte hauetan 96.233 ikasle gutxiago matrikulatu dela, argi geratzen da gurasoek ez dutela konfidantzarik eredu honetan" (NAIA/ETXAGUE/LUKAS, 93).

- Izan ere, A eredia ertainetako ikasmaila guztietan zabaldu egia dago. Bestalde, eskeintzen nahiz eskariaren eraginez BBB-UBIren ikasmaitan A (%81.84) eta, batez ere, D (%17.12) ereduen joera indartzen ari da. LHn (%92.37), berriz, A ereduaren nagusitasuna larritzeko modukoa da. Horrekin, OHOtik datozen ikasleek ez dituzte aukera berdinak. Beraz, azpimarratu nahi genuke ertain-mailako ikasketak aukeraterakoan ez direla hizkuntz-eskubideak bermatzen.

«Buesa kenduz,
Hizkuntz eskubideak
bermatzeko A
ereduaren porrotari
buruz ez dago
diskusiorik eta
gainera, okerrera
dena, helburuak ez
lortzeaz gain "hiztu-
nen arteko desmota-
bazioa eta desenkan-
tua sortzen da
besteak beste"»

«Euskalduntze-
prozesu orekatua
bideratzeko D
ereduaren balioga-
rritasuna behin eta
berri agertzen da.
Inmertsio-sistemaren
aldeko joera da
nagusi»

d) Sareen jokabidea:

Sareek hamarkada honetan zer nolako politika eraman duten ikasmilaz-ikasmila alderatuz (2. Taula) zera esan genezake:

a) Eskolaurrean euskararekin zerikusirik ez zeukatenak desagertu egin dira. A ereduaren joerak ikastetxe publiko (%39.9) eta pribatuek (%60.1) daramaten euskararekiko politika guztiz alderantzizkoa dela adierazten du. Bestalde, pozzgarria da ikastetxe publikoetan D eredia indartzearen aldeko joera egiaztatzea (%32.8), nahiz eta oraingoz B eredia (%54.7) nagusi izan. Pribatueta, berriz, B ereduaren ildotik (%29) jotzen dute.

b) OHOn ikastetxe publikoetan B (%54) eredia da nagusi; A eredia (%43.3) jaisten ari den bitartean, D eredia (%24.3), berriz, tinko zabaltzen ari da. Ikastetxe pribatueta, alderantziz, A eredia (%56.7) da nagusi.

2. Taula. Matrikulazioa ikastereduen, hezkuntz mailen eta sareen arabera

		X		A		B		D	
		1982	1991	1982	1991	1982	1991	1982	1991
HAUR- ESKO- LA	GUZTIRA	3.7	0.8	47.3	26.9	22.6	35.4	26.2	36.8
	PUBLIKOAK	20.9	—	63.6	39.9	56.7	54.7	18.5	32.8
	IKASTOLAK	—	—	—	—	25.4	16.3	70.4	56.9
	PRIBATUAK	79.1	100.	36.4	60.1	17.7	29.0	11.1	10.3
OHO	GUZTIRA	12.4	0.6	65.8	51.0	6.8	24.2	14.8	24.2
	PUBLIKOAK	82.6	—	50.3	43.3	43.5	54.0	14.5	24.3
	IKASTOLAK	—	—	0.2	—	27.7	13.5	76.3	67.3
	PRIBATUAK	17.3	100.	49.3	56.7	28.7	32.5	9.1	8.3
B B B UBI	GUZTIRA	19.1	—	71.2	77.5	2.5	1.5	7.1	20.9
	PUBLIKOAK	55.6	—	68.9	62.2	30.8	31.7	49.8	56.2
	IKASTOLAK	—	—	1.2	—	27.5	32.1	47.3	36.7
	PRIBATUAK	44.4	—	29.7	37.8	41.6	36.3	2.7	7.1
LH	GUZTIRA	28.4	4.4	67.1	91.1	1.6	1.0	2.6	3.5
	PUBLIKOAK	37.4	4.4	46.1	38.5	13.3	—	38.8	57.0
	IKASTOLAK	—	—	—	—	—	—	—	—
	PRIBATUAK	62.6	95.6	53.9	61.6	86.7	100	61.2	43.0

«Eskaintzaren nahiz eskariaren eraginez BBB-UBIren ikasmailetan A eta, batez ere, D ereduaren joera indartzen ari da. LHn, berriz, A ereduaren nagusitasuna larritzeko modukoa da. Horrekin, OHOtik datozen ikasleek ez dituzte aukera berdinak. Beraz, azpimarratu nahi genuke ertain-mailako ikasketak aukeratzeko ez direla hizkuntz-eskubideak bermatzen»

Iturria: EUSTAT. Eragilea: Basurko.

«Eskolaurrean A ereduaren joerak ikastetxe publiko eta pribatuek daramaten euskararekiko politika guztiz alderantzizkoa dela adierazten du. Bestalde, pozgarria da ikastetxe publikoetan D eredia indartzearen aldeko joera egiaztatzea, nahiz eta oraingoz B eredia nagusi izan»

«BBB-UBIren ikasmailetan, nahiz eta A eredia nagusi izan, aipatzekoa da D ereduak hartu duen indarra eta prozesu honetan eskola publikoak jokatu duen papera. Ikastoletan, berriz, D ereduaren joera moteldu egin da, B ereduaren lerroak indartuz»

OHOko elebitasunaren politikak B ereduaren alde (%32.5) jotzen du. Azkenik, B eta D eredueta ikastolaren indarra moteldu egin da zertxobait sare publikoaren jokabidearen eraginez.

d) BBB-UBIren ikasmailetan, nahiz eta A eredia nagusi izan, aipatzekoa da D ereduak (%20.9) hartu duen indarra eta prozesu honetan eskola publikoak (%56.2) jokatu duen papera. Ikastoletan, berriz, D ereduaren joera moteldu egin da, B ereduaren lerroak (%32.1) indartuz.

e) LHn elebidun-lerroaren indarrari begiratu, nahiz eta kezkarria izan (B=%1; D=%3.5), ikastetxe publiko eta pribatuen joera, eskolaurrean bezala, guztiz kontrajarria da: publikoek D lerroaren alde jotzen badute, pribatuak B ereduaren ildotik doaz.

Ondorioz, ereduaren azterketa honetan adierazi dugunez, Euskal Eskola Publikoaren legeak, ereduaren bidea berreskuratzerakoan, ikerketa, esperientzia eta gurasoen elkarteek azaltzen duten borondatearen aurka jotzen du.

Irakaslegoaren egoera aztergai

Euskalduntzeko prozesuaren normalkuntzari buruz hitz egiterakoan ezin dugu alde batera utzi eskola-irakaslegoaren egoera eta hauex da guk, IZTUETARI jarraituz, ikusten duguna:

- Departamentuaren iritzi, "premia larriena euskaraz irakasteko irakaslegoren gaitasuna da" (*Egin*, 92.04.24). 1986-87 ikasturtean EGAdunen %67.02ak Ikastoletan lan egiten zuten, beste %26.10ek eskola publikoetan eta azkenik %12.57ak eskola pribatuetan. Kopuru hauek ikusirik, euskal-eskubideak bermatu ahal izatetik nahiko urrun gaudela esan behar da. Eta, nola euskaldundu irakaskuntza ikasleen hizkuntz-eskubideei erantzun zilegia emateko, irakasleak ez badira euskaldunak?

- Gaur egun, eskola-irakasleagoa euskalduntzeko plangintza eta antolakuntza Administrazioaren esku dago eta Iraleren bidez gauzatzen da (IDIAZABAL, 1984, l. 7, V7-8 orr.). Departamentuaren esanetan, 15.000 irakasle igaro dira 1982tik honera euskalduntze prozesu batetik, hau da, %53.5ak egin du udako edo kurtso osoko ikastaldiren bat. Bestalde, hamar urte hauetan 4.058k eduki dute eskapena eta ordezkapena euskara ikasteko eta horietatik 3.449k eskola publikoan lan egiten zuten, 542k pribatuan eta 76k ikastolan. Diru aldetik, azken hamar urte hauetan aurrekontua 180 milioietatik 3.000 milioietara areagotu dute. Irakas-euskalduntzearen prestakun-

tzari lraleren bidez erantzun egokia emateko Administrazioaren ahulezia argi dago. Zein da bidea? Alde batetik, gai honi behar duen garrantzia eman behar zaio, dirulaguntza eta aurrekontua areagotuz. Bestalde, euskalduntze-prestakuntzaren plangintza ikastetxeko autonomiaren ahalmentzat onartu behar da, zeren Ikastetxeko Hezkuntz-Proiektuaren arabera beste irakas-prestakuntza baita (EA-EUE, 1993, EEP legeari egindako zuzenketak). Azkenik, lraleren mugak onartuz, ikastetxe bakoitzak bere irakaskuntzarako dituen euskalduntzearen beharrak asetzeko askoz egoki, malgu eta merkeagoa izan daiteke helduen irakaskuntzarako udal eta eskola- mugapena mailan jadanik antolatuturik dauden euskaltegiez balia-tzea.

- EEP legean eta Hizkuntz-Profilaren dekretuan gauzatzen denaren arabera, bi irakasle mota izango ditugu: bat, euskaldun pasiboak edo HP1; bi, euskaldun osoak edo HP2. Beren adskripzioa eta prezeptibitatea hizkuntz-ereduaren arabera egingo da. Gure ustez, normalkuntzaren bidea hartzeak zera suposatzen du: "irakaslego erdalduna euskalduntzeko bideak erreztu egin behar zaizkie, baina epeak eta neurri lotesleak hartuz, zeren bost urtetako epea aski zabala baita irakaskuntzarako hizkuntz gaitasuna frogatu ahal izateko" (IZTUE-TA,93:35). Beraz, prezeptibitatearen aldetik ezin direla onartu hamar urteko epeak ez eta 45 urteko amnistia. Bestalde, adskripzio aldetik, zergaitik inposatu behar ote da B eta D ereduetan HP1eko irakaslegoa gaztelerazko eskolak emateko HP2koak elebidunak baldin badira? HPko dekretazo hori euskararentzat izugarrizko atzerapausoa izan daiteke, 1986ko uztailak 4ko B ereduari buruzko aginduaren ildotik baitoa, nahiz eta Euskararen Aholku Batzordeak bere plenoan gaitzetsi: "agindu honen aplikapena sare publikoko ikastetxeetan B ereduaren hobekuntza murriztu egin du" (1991.06.07). Hizkuntz-profilari buruz, LARRAÑAGARI ea eskola faktore erdalduntzailea izan daitekeen galdetzen diotenean, honako hau adierazten du: "Badagoelako arrisku izugarria hizkuntzaren halako sasi-hizkuntza batean hurbilpen mailan gelditzeo herriko euskararen ezagutza sakon batera iritsi gabe, ereduak ez dutelako horretarako jokurik ematen eta, zuzenean euskararen irakaskuntza euskaraz eta euskaraz bakarrik egitea ezinezkoa gertatu delako. Orduan,(...) berreuskalduntze prozesua ere baldintzatuta eta mugatuta gertatzen da, nola-bait" (URIA-ZUMALABE, 1991, BAT-1, 55 orr.).

- Ildo berean, irakaslego berriak orain arte EGAduna izan behar zuen, baina HPko dekretuaren arabera irakaslego berriaren prezeptibitatea adskripzioaren arabera izango da.

*«LHn elebidun-
lerroaren indarrari
begiraturaz, ikastetxe
publiko eta pribatuen
joera, eskolaurrean
bezala, guztiz kontra-
jarria da: publikoek
D lerroaren alde
jotzen badute,
pribatuak B eredu-
aren ildotik doaz»*

*«Euskal Eskola
Publikoaren legeak,
ereduaren bidea
berreskuratzerakoan,
ikerketa, esperientzia
eta gurasoen elkar-
teek azaltzen duten
borondatearen aurka
jotzen du»*

«EEP legean eta Hizkuntz-Profilaren dekretuan gauzatzen denaren arabera, bi irakasle mota izango ditugu: bat, euskaldun pasiboak edo HP1; bi, euskaldun osoak edo HP2.

Beren adskripzioa eta prezeptibitatea hizkuntz-ereduaren arabera egingo da»

«Zergaitik inposatu behar ote da B eta D ereduetan HP1eko irakaslegoa gazte-razko eskolak emateko HP2koak elebidunak baldin badira? HPko dekretazo hori euskararentzat izugarritzko atzera-pausoa izan daiteke, 1986ko uztailak 4ko B ereduari buruzko aginduaren ildotik baitoa, nahiz eta Euskararen Aholku Batzordeak bere plenoan gaitzetsi»

Hau da, hizkuntz ereduaren arabera izanez, HP1eko plaza betetzera baldin badator, HP1eko profila izan behar du; eta HP2ko plaza betetzera baldin badoa, HP2ko profila bete behar du. Zeharka, EEP legeak horrelako neurriekin hizkuntz-eskubideei murrizketa garrantzitsu bat dakarkie, zeren ereduak, baliabideak izan arren, hezkuntz helburu bihurtzen baitira, hizkuntz helburuak eta eskubideak murriztuz. Bestalde, ereduak dinamikoak izan ordez, eredu itxi bezala inposatzen dira, beharrezkoa den mugikortasuna mugatuz, zeren irakaslegoaren hizkuntz-profilak hizkuntz-ereduaren auke-raketa eta Hezkuntz Proiektua baldintzatzen baitute (Euskararen Aholku Batzordea, 1991.06.07).

Azkenik, EEPko legeak, hizkuntz eskubideen irakurketa estua eginez, irakaslegoaren euskalduntze prozesuak adskripzio boluntarioaren bidez egiten ahalegingo direla azaltzen du. Hizkuntz normalkuntzak hezkuntzan eramaten ari den hizkuntz-politika berrikustea exijitzen du. IZTUETAK honela dio: "Euskara Euskal Herrian egoera diglosikoan kausitzen denez gero, uste da eskubide pertsonaletan finkatutako hizkuntz politikak jadanik emanik dituela bere emaitzak azken hamabost urteotako gestioaldian, badakigula nora garamatzen. Jokabide murriztaile eta diskriminatzaile horrek ekarritako emaitza hegamotoz, pobre eta ez-askien aurrean, eskatzen da ezarrita izan dadila lurraldetasunaren printzipioa, euskararen berreskurapen-plangintza Hego Euskal Herri osoan zehar aplikatuta izan dadin, Ipar Euskal Herriarekin batera" (IZTUETA, 93:33).

Hezkuntza, kultura eta kurrikuluma

Hizkuntz-normalkuntzari buruz hitz egiterakoan, ezin dugu euskal-curriculumari dagokion problematika alde batera utzi.

Hizkuntza eta curriculum artean dauden erlazioak bi ikuspegi desberdinetatik hartu behar ditugu euskararen kasuan. Gauza bat da curriculum osatzen duen asignatura (A) edo irakaskuntz- hizkuntza (B-D) bezala euskarari dagokion eskola-trataera; beste gauza bat da euskara eta kulturaren artean dauden harremanak edo alfabetatze eta euskalduntze prozesu bikoitzari dagozkion harremanak kontutan harturik, zer nolako eskola-trataera ematen diogun.

Elebitasunaren arazoa ez dago, beraz, hizkuntzaren izaeretan, "el problema en todo caso es cómo se hace la educación bilingüe(...)el problema no está en la lengua, sino en cómo se enseña" (VILLA, *Egin*,92.3.5). Ildo honetan, hizkuntz ereduaren grina dugu normalkuntzaren bidean.

Horrela ikusita, motibazioa eta giza-implikazioa direla medio, euskararen normalkuntza arazo teknikoa izanez gain, hezkuntz proiektua eta kultura-arazo bat da. Larrañagari hitza emanez: "normalizazioa motibazioarekin lotuta joaten da, ordezkapen-prozesuan, ordea, motibazioa ahuldu egiten da, hau da, motibapena ahultzen doan neurrian, hizkuntzaren ordezkapenak aurrera egiten du eta, alderantziz, errekupe-
tuz doan motibapenak eragile moduan jokatzeko du" (URIA-
ZUMALABE, 1990, BAT 1. zba. 53 orr.)

Gaur egun hizkuntz normalkuntza lortzeko eskolatzeko-sistema osoaren implikazio zuzena behar da. Nahiz eta asko aurreratu arlo linguistiko eta psiko-pedagogikoetan, maila tekniko- profesionalera mugatzen badugu euskararen ardura, euskararen berreskurapena ez da inoiz gertatuko eta epe laburrean eskualde batzuetan galtzeko zorian egongo da. Gizarte eta familiaren motibazioa eta implikazioa behar beharrezkoa da oraingoz ere.

Horregatik, Euskal Eskola Publikoaren aplikazioak behar-tuta publikotasunaren alde ikastola askok egindako apostua-
ren aukerari oso garrantzitsua deritzot. Hizkuntz normalkun-
tza ikuspegitik begiraturata, gobernukideak oker dabilta ikas-
tolen normalkuntza lortzeko asmoz bi sareen kompetentzia
eredu gisa proposatzen. Ingelesa izango balitz eskuarte-
an dugun 2. Hizkuntza kompetentzia-sistema batean uztea be-
harbada onuragarria izango litzateke, baina jatorrizko hizkun-
tza kolokan dagonean, ez da egokia ez eta bidezkoa ere
iruditzen hezkuntz-sistemaren normalkuntza lortzeko konpe-
tentzia-prozesu bat ezartzea.

Bestalde, hizkuntzak eta hezkuntzak ez badaude etxegiroa
eta auzo-inguruarekin loturik tresnagintzazko trataeretan
geratzen dira trabetasun bitxi eta berezi gisa. VYGOTSKYK
proposatzen duen bezala, hizkuntza, ama-hizkuntza bezala
hartzeko bada, bitartekari-papera jokatzeko du pertsonaren
garapenean eta inguruarekin duen giza-erlazioetan bere eza-
gutza eraikitzeko. Are gehiago, hezkuntzak jokatzeko duen
bitartekaritza-papera ezinbestekoa da, baina horretarako
hezkuntzaren hizkuntza eta edukiak bere etxeko eta bere
herriko-kulturarekin zerikusi handia eduki behar dute, hori
baita bide bakarra gizakiak bere ezagutzari esanahia ema-
teko eta ezagutza praktiko eta esanguratsu hori eraikitzeko,
hau da, bere bizitarako baliagarria den ezagutza lortzeko.

Planteamentu honekin ulertu behar dugu Euskal Eskola
Berriaren aldeko Denon Artean plataformak proposatu zuen
Curriculum propioaren eskakizuna. Curriculum propioa eska-

*«Curriculum
propioa eskatzea ez
da unibertsal den
ezagutzarekin
euskaraz idatzitako
curriculum osatzea,
euskara tartekari
kognitiboa erabiliz
Euskal Herrian
dauden errealitate
kulturala, soziala,
ekonomikoa,
historikoa,
geografikoa eta
politikoa ezagutzea
eta aztertzea baizik»*

tzea ez da unibertsala den ezagutzarekin euskaraz idatzitako curriculum osatzea, euskara tartekari kognitiboa erabiliz Euskalerrian dauden errealitate kulturala, soziala, ekonomikoa, historikoa, geografikoa eta politikoa ezagutzea eta aztertzea baizik.

«*Jatorrizko hizkuntza kolokan dagonean, ez da egokia ez eta bidezkoa ere iruditzen hezkuntz-sistemaren normalkuntza lortzeko konpetentzia-prozesu bat ezartzea*»

Argi dago: hizkuntz-normalkuntzaren ikuspegitik Euskalerrian proposamen anitz ditugu eredu gisa, hau da, elebarkatasuna, elebitasuna, eleaniztasuna,... Orduan, elebitasuna gure hizkuntz helburu egiterakoan Estatutuaren aukera politikoa izan zen. Horregatik, azken bolar honetan instituzionalki normalkuntza eta integrazioa bat datoz hizkuntza zein hezkuntza sisteman: "La enseñanza bilingüe ha de presentarse no sólo como una reivindicación político-cultural sino como un modelo educativo óptimo no sólo para la sociedad vasca, sino para cualquier ciudadano de la sociedad actual (IDIAZABAL, Ipes, 1984:V3)".

Euskarak eta euskal-kulturak duten integratzaile funtzio hori hain ukaezina eta nabarmena da ezen hizkuntz eskubi-deen sustapena baita. Dena dela, euskararen egoera soziolingüistikoaren arabera eskualde, herrialde eta auzo desberdinetan trataera desberdindua behar du irakaslegoarengandik nahiz guraso edo gizartearengandik. Zaila da, gaur egun hizkuntz normalkuntzari trataera politikoa edo hezkuntz trataera uniforme eta bakarra ematea.

Felix Basurko

EHU/UPVko irakaslea

Teacher of UPV/EHU

(University of the Basque Country)

«*Hezkuntzak jokatzeko duen bitartekaritza-papera ezinbestekoa da, baina horretarako hezkuntzaren hizkuntza eta edukiak bere etxeko eta bere herriko-kulturarekin zertikusi handia eduki behar dute*»

BIBLIOGRAFIA:

ARREGI, F. (Koord.) (1992) *Euskal Alfabetatzearen Azterketarako Lehen Urratsak 1960-1990*. Donostia: Letrakit-Hezkuntz Teoria eta Historia Saila (publikatu gabe).

BASURCO, F. & IZTUETA, P. (1993) *Euskal eskola berria*. Donostia: EHU-UPVko Hezkuntz Teoria eta Historia Saila.

BIGE-FAPA (1993) "Los padres optan por el modelo D". *Egin*, 93.01.22.

BUESA, F. (1992) "A ereduak hizkuntz normalkuntza dakar". *Egunkaria*, 92.07.12. "Es más necesario que los niños aprendan inglés que euskera". *Egin*, 92.03.30.

EGIN (1992) "Educación dedica 3000 millones a la euskaldunización de profesores". *Egin*, 92.04.24.

EIZAGIRRE, A y DAVILA, P. (1991) "Alfabetatzea Euskal Herrian: ikuspegi

historikoa". *Ele*, 8,27-55 orr.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (1991) *Euskararen normalkuntza irakaskuntza*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza.

ETXEBERRIA, F. (1992) *Euskal eskola: Elebitasunari buruz 20 urtez ikerketan*. EHU-UPVko Hezkuntz Teoria eta Historia Saila: Memoria de Catedra (Inédita) laburpena Isiliken 1992, pp. 10-13.

FISHMAN, J.A. (1990) "Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan" in GOBIERNO VASCO *Primer congreso de la Escuela Pública Vasca*. Gasteiz: Gobierno Vasco, 127-144.

GARAGORRI, X. eta beste. (1983) "Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera". *Jakin*, 28, 6-60 orr. (1992) "Ikastola hezkuntz eredu gisa". *Eusko Ikaskuntzetako XI. Kongresuaren Aktak*. Donostia.

IDIAZABAL, I. (1984) "La educación bilingüe en el ámbito escolar". *Ipes* aldizkaria, 7, V2-8.

ISILIK(1984) "Elebitasuna" *Isilik* aldizkaria 4, 4-51. (1989) "Erdaldunak murgiltze sistemaz euskalduntzen" *Isilik* aldizkaria, 11, 5-36. (1992) "Euskalerrria eta Kanadan murgiltze bidean" *Isilik* aldizkaria 14, 5-39.

JAKIN (1977) "Euskal liburugintzaz" *Jakin* 4. zba., 98-101 orr. (1990) "Euskal liburugintza" *Jakin* 57. zba., 121-162 orr.

NAIA, L. M./ETXAGUE, X. & LUKAS, F. J. (1993) "Euskararen presentzia hego Euskalerrriko hezkuntz sisteman" *Uztaro* aldizkaria, inprimategian.

SIADeco (1976) *Estudio socio-lingüístico del euskera*. X-XI. Tomoa. SIADeco.

SIERRA, J. & OLAZIREGI, I (1986-92) *E.I.F.E. I-II. Euskararen irakaskuntza: faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza. (1991) H.I.N.E.: O.H.O. 8. mailaren azterketa. Gasteiz: Eusko Jauriaritza.

URIA, I. & ZUMALABE, J. M. (1991) "Iñaki Larrañagarekin elkar hizketa: Normalizazioa ez da elebitasuna soziala". *BAT-1* zba. 51-73 orr.

VILLA, I. (1992) "El bilingüismo en el niño favorece su desarrollo personal y académico". *Egin*, 92.04.05.

«Curriculum propioa eskatzea ez da unibertsal den ezagutzarekin euskaraz idatzitako curriculum osatzea, euskara tartekari kognitiboa erabiliz Euskalerrrian dauden errealitate kulturala, soziala, ekonomikoa, historikoa, geografikoa eta politikoa ezagutzea eta aztertzea baizik»